

ETXEDRONING

Gaur egun bizi izan dugun egoera dela medio, Covid-19ko egoera, gure behar berriei egokitzen zaion produktu berri bat sortu dugu. Bizi izan dugun hiruhileko konfinamenduak, ez digu kalera ateratzen utzi. Eta egoera honi konponbidea bilatzeko *Etxedroning* sortu dugu. Beraz, produktu hau sortu dugu, erosleen etxera eskatutakoa bidaltzeko era seguru baten.

Hortaz, gure produktuarekin bezeroari bizi dugun egoerak sortu dion behar bat estaltzen ari gara. Kalera atera ezin gaitezken heinean, negozioak alde batera ez uzteko, negozioak itxita dauden bitartean jendeak kontsumitzen jarraitu ahal izateko aukera ematen dugu. Hau da, egoera ekonomikoa hobetzeko eta aldi berean sortu dugun krisi egoerarekin bukatzeko helburua dugu.

Gure enpresa bereizgarria da, gaur egun munduan ez dagoelako enpresarik guk asetzen dugun beharra modu horretan eta produktu horiekin egiten dutenak. Beste hitz batzuetan, badaude gure antzeko enpresak baina ez daude gaur egungo egoerara egoki egokitzen direnak. Beraz, arazo hori konpontzeko sortu dugu enpresa, erosleen beharrak asetzeko.

Laburbilduz, lehiakideengandik argi eta garbi bereizten gaituen ezaugarriak honako hauek dira: gure berritasuna, ditugun prestazioak, gure lankideen pertsonalizazioa, lankideen arrisku murrizketa eta haren eskuragarritasuna zein erabilerraztasuna. Honetaz aparte, prezio egokia du, (eroslearen eskaerari dagokiona). Eta eramaten ditugun produktuak segurtasun handiaz bidaltzen ditugu kalitatezko produktuak erabiltzen ditugulako.

Amaitzeko, hemen beheko irudia gure enpresako logo eta slogana da.

